16
URRIA | OCTUBRE
2026

ASTIGARRAGAKO
Txiokaria

UDAL ALDIZKARIA

BADA, euskaldunon topalekua, martxan

UDAL ZERBITZUAK:
Kontratupeko zerbitzu nagusiak Tokiko enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa, apustu sendoa
2

EKINTZA ERAGILEAK:
Badator gazte eta ez hain gazteen arteko erronka eta jaia
6

UDALA:
Udal eraikinetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanak
8

Kontratupeko zerbitzu nagusiak

Tokiko enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa, apustu sendoa

Astigarragako Udalak kontratu bidez esleituta dituen zerbitzu nagusiak eraikinen garbiketa, kale garbiketa eta lorazaintza dira. Egunero eskaintzen diren zerbitzuak izanik, ia 50 lanposturi buruz ari gara, zeregin jarraikorrak eta tartekatutako lan taldeenak batuz gero.

Astigarragako Udalak apustu sendoa egina dauka tokiko enplegu egonkorraren alde, eta garrantzia berezia eman dio enplegu inklusiboari. Horrela, kale garbiketaren eta lorazaintzaren esleipenak gizarte ekimeneko enplegu zentro berezietarako erreserbatuta dauzka. Bien kasuan GUREAK taldea da kontratuduna: Gureak Garbitasuna S.L. kaleko garbiketen, lehioen garbiketen eta markesina zein teilatu gardenen kasuan, eta Gureak Berdea S.L. kanpoko zein barruko lorazaintzaren kasuan.

"Zerbitzua modu espezializatuan eta kalitatezkoan jasotzea bilatzen dugu, noski. Eta horrekin batera, enplegu horien balio sozialari sendotasuna ematea ere lortzen dugu: izaera inklusiboko kontratazioak dira, aniztasun funtzionala aintzat hartuta, eta kasu gehien-gehienetan bertako eta inguruko herritarrak dira langileak", azaldu dute udal ordezkariek. Hona hemen, laburbilduta, zerbitzu nagusi horien kontratuei dagozkien datuak:

Kale garbiketa Limpieza de calles, 2 Lote

Gizarte ekimeneko enplegu-zentro berezietarako erreserbatua Reservado para centros de empleo especiales de iniciativa social
Indarrean En vigor: **2026/11/01**
Iraupena Duración: **2 urte + 2 luzapen** 2 años + 2 prórrogas.

1 LOTEA — Kale garbiketa orokorra
Limpieza general de calles

Urteroko kostua Coste anual: **+-550.000€ BEZ barne**
Esleipenduna Adjudicataria: **Gureak garbitasuna, S.L.**

Gizarte ekimeneko enplegu-zentro berezia. Duela 30 urtetik hona etengabe ari dira zerbitzua ematen. Baliabide mekaniko ugari, tartean espaloien garbiketarako makina dekapatzaile berria. Langileak subrogatzeko betebeharra. Batez beste 13 pertsonari ematen diete lana, 12ri jardunaldi osoan. Astigarragako bizilagunak kontratatzeko joera dute.

Centro de empleo especial de iniciativa social. Ofrece este servicio ininterrumpidamente desde hace 30 años. Dotación mecánica importante, con una máquina decapadora nueva entre otras. Obligación de subrogar. Emplean a 13 personas, 12 a jornada completa. Tendencia a contratar personas de Astigarraga.

2 LOTEA — Markesinen eta teilatu zeharrargien garbiketa
Marquesinas y tejados translúcidos

Urteroko kostua Coste anual: **+-18.000€ BEZ barne**
Esleipenduna Adjudicataria: **Gureak garbitasuna, S.L.**

Gizarte ekimeneko enplegu-zentro berezia. Aurten hasiko dira zerbitzu berri hau ematen. Urtean behin egiten dituzte garbiketak 4-5 pertsonek osatutako talde baten bitartez. Baliabide mekaniko ugari.

Centro especial de empleo de iniciativa social. Este año inician este servicio. Limpieza anual a través de un grupo de 4-5 personas. Numerosa dotación mecánica.

Eraikinen garbiketa Limpieza de edificios, 2 Lote

Lehiaketa irekia Concurso abierto
Indarrean En vigor: **2024/07/01**
Iraupena Duración: **2 urte + 2 luzapen** 2 años + 2 prórrogas.

1 LOTEA — Eraikinen garbiketa orokorrak
Limpieza general de edificios

Urteroko kostua Coste anual: **+-350.000€ BEZ barne**
Esleipenduna Adjudicataria: **Limpiezas Impacto, S.L.**

Langileak subrogatzeko betebeharra. Batez beste 15 pertsonari ematen diete lana, hainbat jardunaldi desberdinekin. Astigarragako bizilagunak kontratatzeko joera dute.

Obligación de subrogar. Dan empleo a unas 15 personas con diversas jornadas. Tendencia a contratar personas de Astigarraga.

2 LOTEA — Leihoen garbiketa
Limpieza de ventanas

Urteroko kostua Coste anual: **+-20.000€ BEZ barne**
Esleipenduna Adjudicataria: **Gureak garbitasuna, S.L.**

Gizarte ekimeneko enplegu-zentro berezia. 2 urte daramate zerbitzua ematen. Hiruhilero egiten dituzte garbiketak 4-5 pertsonek osatutako talde baten bitartez.

Centro de empleo especial de iniciativa social. Llevan 2 años dando el servicio. Limpieza trimestral a través de un grupo de 4-5 personas.

Lorezaintza Jardinería, 2 Lote

Gizarte ekimeneko enplegu-zentro berezietarako erreserbatua Reservado para centros de empleo especiales de iniciativa social
Indarrean En vigor: **2026/10/01**
Iraupena Duración: **2 urte + 2 luzapen** 2 años + 2 prórrogas.

1 LOTEA — Kale lorezaintza
Jardinería exterior

Urteroko kostua Coste anual: **+-320.000€ BEZ barne**
Esleipenduna Adjudicataria: **Gureak Berdea, S.L.**

Gizarte ekimeneko enplegu-zentro berezia. Duela 30 urtetik hona etengabe ari dira zerbitzua ematen. Baliabide mekaniko ugari. Langileak subrogatzeko betebeharra. Batez beste 6 pertsonari ematen diete lana, bosti jardunaldi osoan. Eskualdeko bizilagunak kontratatzeko joera dute. *Centro de empleo especial de iniciativa social. Llevan 30 años ininterrumpidos dando el servicio. Numerosa dotación mecánica. Obligación de subrogar. Emplean a 6 personas, 5 a jornada completa. Tendencia a contratar personas de la comarca.*

2 LOTEA — Barne landareen lorazaintza
Jardinería interior

Urteroko kostua Coste anual: **+-2.800€ BEZ barne**
Esleipenduna Adjudicataria: **Gureak Berdea, S.L.**

Gizarte ekimeneko enplegu-zentro berezia. 5 urte daramate zerbitzua ematen. *Centro de empleo especial de iniciativa social. Llevan 5 años dando el servicio.*

Principales servicios contratados

Una apuesta firme por el empleo inclusivo y de calidad

Los tres principales servicios que el Ayuntamiento de Astigarraga tiene contratados son el de limpieza de edificios municipales, limpieza de calles y el de jardinería. Estamos hablando de alrededor de 50 empleos, entre empleos continuados y a jornada completa, y tareas intermitentes.

El Ayuntamiento de Astigarraga hace una apuesta firme por el empleo duradero y de cercanía, dando gran importancia al empleo inclusivo. Así, las licitaciones de los servicios tanto de limpieza de calles como el de jardinería los reserva para centros especiales de empleo de ininiativa social. En ambos casos el grupo GUREAK es el adjudicatario de dichas tareas, a través de Gureak Garbitasuna S.L. en el caso de la limpieza de calles, de ventanas exteriores y de marquesinas y tejados translúcidos, y de Gureak Berdea S.L. en el caso de la jardinería exterior e interior.

"Buscamos dotarnos de estos servicios con calidad y especialización, por supuesto. Junto a ello, también buscamos dotar a esos empleos de un fuerte valor social. Se trata de contrataciones que tienen en cuenta la diversidad funcional, y son en la mayoría de los casos, empleos de cercanía", han explicado los representantes municipales.

Se instalará un ascensor para mejorar la accesibilidad de la antigua Casa de Cultura

Avanza el proyecto del ascensor, para convertir el acceso entre el edificio y la Kale Nagusia en una zona más accesible y segura, ya que la actual escalera-rampa no cumple con las premisas de accesibilidad.

Junto con la instalación del ascensor, también se adaptará el espacio adyacente, y se renovarán los servicios públicos. Estas mejoras se enmarcan en un proyecto más amplio que pretende dotar a la antigua Casa de Cultura de nuevos usos. Entre otros, se prevé destinar la instalación a espacios para la juventud y para las asociaciones.

El ascensor contará con dos niveles: la cota cero será la de la Kale Nagusia, y tendrá otras dos paradas; una frente al Robin, y otra en la antigua Casa de Cultura.

Landa-inguruko biztanleentzako doako garraio-zerbitzua jarriko da martxan

Behemendi Landa Garapenerako Elkarteak eta Astigarragako Udalak Bidez Bide garraio-zerbitzua jarriko dute martxan, landa-inguruneetako biztanleen mugikortasuna errazteko. Doako zerbitzua izango da, eta bereziki adinekoei, mugikortasun urriko pertsonei edo desgaitasunen bat dutenei, eta horien zaintzaz arduratzen diren pertsonei zuzenduta egongo da.

Zerbitzua udalerri barruko joan-etorrietarako erabiliko da, besteak beste, osasun- eta gizarte-zerbitzuetara, saltokietara, ile-apaindegietara eta antzeko zerbitzuetara joateko. Lanegunetan 07:30etik 13:30era egongo da erabilgarri, eta erabiltzeko aldez aurretik, gutxienez egun bat lehenago, 626 136 976 telefono-zenbakira deitu beharko da.

Bestalde, Udalak jakinarazi du epe motz-ertainean Astigarragako auzoguneak lotuko dituen autobus-zerbitzu erregularra ere jarriko duela martxan. Zerbitzu horri buruzko informazio gehiago aurrerago emango da, eta Bidez Bide zerbitzuaren osagarri izango da.

Amaitzear daude Umakoneko azokagune berriaren obrak, eta Udalak partaidetza-prozesua abiatuko du haren erabilera adosteko

Astigarragako Udalak azken txanpan ditu Norberto Almandoz plazako Umakoneko azokagune berria eraikitzeko obrak, eta lanak azaroan amaitzea aurreikusten da. Egitasmo hau "Astigarraga zure esku" aurrekontu parte-hartzaileetan herritarrek bultzatutako proiektua da, eta bertako nekazaritzako ekoizleei salmenta-gune estali, duin eta erosoa eskaintzea du helburu nagusi.

Eraikuntza-lanak amaitu bitartean, Udalak ikerketa eta dinamizazio prozesu bat jarri du martxan azokaren funtzionamendua, kudeaketa eta etorkizuneko erabilerak herriko eragileekin zein herritarrekin batera adosteko. Lehen sektoreko salmentaz haratago, aztergai izango dira tokiko artisautza, sorkuntza kulturala eta produktuak dastatzeko zein erakusteko aukerak ere.

Helburu horrekin, hainbat urrats egingo dira urte amaiera bitartean: inguruko azokagune inspiragarrien azterketa egin ostean, galdetegiak, elkarrizketak eta lan-saio irekiak bideratuko dira herritar, baserritar eta merkatarien eskutik. Jasotako ohar eta diagnosiekin, 2027. urtean zehar gune berria dinamizatzeko Sustapen Plana osatuko da.

Zarkumendegiko aparkalekua hobetzeko lanak aurrera doaz

Uztailaren amaieran hasi ziren Zarkumendegin, futbol zelaiaren inguruko aparkalekua egokitzeko eta hobetzeko lanak. Jarduketaren helburua espazio iraunkorragoa, funtzionalagoa eta seguruagoa izatea da, bai eguneroko erabilerarako, bai ekitaldi desberdinetarako.

Guztira, 100 ibilgailu ingururentzako aparkalekua egokituko da, kotxe eta furgonetentzat. Trafikoa ere berrantolatuko da, goiko aldetik sarrera eta beheko aldetik irteera ezarriz, ibilgailuen arteko gurutzaketak saihesteko. Autobusentzako, berriz, errepidearen ondoko aparkalekuak erabiliko dira. Gainera, bidegorriaren sarrera hobetu eta seguruago egingo da, eta aparkalekuetan lurzoru xurgagarria erabiliko da, belarra haztea ahalbidetuko duen sistema baten bidez.

Lanak urte amaiera aldera amaitzea aurreikusten da.

Se fortalece el programa AMUGA, que ofrece actividades de ocio adaptado para niñas/os y adolescentes con diversidad funcional

El programa arrancó el año pasado como prueba piloto, y se dirige a usuarias/os entre 6 y 17 años. Viendo el éxito con el que contó, el Ayuntamiento ha decidido consolidar el programa. Así, mediante concurso público, se le ha adjudicado el servicio a Hezkide Aisialdi Eskola.

AMUGA está en marcha el último sábado de cada mes, de 16:30 a 19:30, entre septiembre y junio. Las actividades se llevan a cabo en Erribera Kulturgunea, y abarcan desde trabajos manuales, paseos por el municipio, participación en los eventos del pueblo, o salidas a otros lugares.

El primer encuentro tuvo lugar el pasado 26 de septiembre. Este curso han sido siete los inscritos. Cinco monitoras y monitores se encargarán de su dinamización, adaptando la experiencia lúdica a las necesidades de estas siete personas.

“Hainbeste hazi den herrian, elkar ezagutzea da egunaren helburu nagusia”

Badator gazte eta ez hain gazteen arteko erronka eta jaia

Ehun eta ehun, berrehun! Gora Astigarraga! Hala dio esaerak. 200dik gora izango dira, ordea, astigarragar gazteen eta ez hain gazteen arteko erronkan parte hartuko dutenak hilaren 24an, Gazte Asanbladak antolatuta.

Herri bazkarian, are gehiago ere batuko dira. Duela hiru urtekoari jarraipena emanda, “hainbeste hazi den herrian, elkar ezagutzea” da egunaren helburu nagusia. Lehia sanoan, ondo pasatuz, gazteen artean eta ez hain gazteen artean, zubiak eraikitzen jarraituko dute, beraz.

Antolakuntza taldean pozik daude aldez aurretik egindako lanekin, eta horren berri eman dute Ane Ollokiegik (Astigarraga, 1991) eta Uxue Ollokiegik (Astigarraga, 2001): “Hamabost bat lagun aritu gara, eta gustura”. Ane neskatoa zen garai batean Gazte Asanbladak antolatzen zituen Olinpiaden garaian: “haiei egindako keinua ere bada oraingo Erronka hau”. Katea ez da eten. Berrehundik gora herritarrek hartuko dute parte jolasetan eta antolakuntza taldekoek jarri dituzte talde txikietan, jolas edo joko bakoitzerako izendatuta. 15-30 urte bitartekoak ariko dira “gazteen” taldean, eta hortik gorakoak “ez hain gazteenean”. Gazteenak “oso gogotsu” datozela diote biek: “Lehenengo edizioa ikusi zuten eta hain egun polita izan zenez, gogo handiz datoz”.

2023an jaio zen, beraz, aro honetako Erronka edo jolas eguna, Gazte Asanbladaren 30. urteurrenaren testuinguruan; kuadrillaka ez, baizik eta adinaren araberako bi talde handitan antolatzea erabaki zen. “Erabaki genuen hiru urtero egingo genuela, eta lehenengo hartan berdinketan bezala geratu ginen. Talde batek jolas batzuetan irabazi zuen, besteak beste batzuetan, eta hor geratu zen airean...”, dio gazteenak farrez. Beraz, nolabaiteko “errebantxa desafioa” bota diete gazteenek “ez hain gazteei”. Hala agertu izan dute hiru bideoren bitartez. Orain, heldu da eguna: jolasa, lehia, eta batez ere umorea kalera aterako dute. Bi talde, 120 herritar inguru bakoitzean, eta herri edo komunitate sentimendu bakarra.

“El juego, la competición sana y el humor son los mejores ingredientes para seguir tejiendo comunidad”

Desafio y fiesta popular entre jóvenes y “no tan jóvenes”

El 24 de octubre va a tener lugar la segunda edición de la Erronka o desafio festivo entre dos grupos de astigartarras. Más de 200 personas participarán directamente en los juegos, organizados en un grupo de jóvenes de hasta 30 años, y otro de “no tan jóvenes”, de 30 en adelante. Aún son más las personas que se han inscrito en la comida popular que tendrá lugar en el frontón.

Esta es la segunda edición de la Erronka. En 2023 tuvo lugar la primera, en el contexto del 30 aniversario de la Gazte Asanblada de Astigarraga. Fue una jornada muy bonita en opinión de las y los organizadores, y decidieron repetirla cada tres años. El objetivo es que las generaciones jóvenes y no tan jóvenes se conozcan más entre ellas, en este municipio que tanto ha crecido los últimos años. “El juego, la competición sana y el humor son los mejores ingredientes para seguir tejiendo comunidad”, han explicado.

EGITARAUA

10:00 ERRELEBO froga, Andre Gobadarien parkean

11:00 Kantxetan **HAINBAT FROGA** eta **JOSELONTXOS** txarangaren kalejiraren hasiera

12:00 HERRI KIROLAK Emakumeen Plazan

13:00 HERRI JOLASAK Joseba Barandiaran plazan.

14:00 KALEJIRA Joseba Barandiaran plazatik hasita.

15:00 H**ERRI BAZKARIA** Txomiñenea pilotalekuan.

16:30 PLAYBACK ikuskizuna Txomiñenea pilotalekuan.

17:15 AULKI DANTZA Foru Plazan.

18:00 AMAIERA EKITALDIA Foru Plazan eta ondoren kalejira **ELEKTROTXUFLA** txarangarekin.

Udal eraikinetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanak

Eraikinen Eraginkortasun Energetikoa hobetu eta ziurtatzeko hainbat hobekuntza lan egin dira eta egingo dira.

Besteak beste, herriko eraikin publiko batzuk eraginkotasuneko A eta B etiketetara pasa ahalko dira horrela. Lan batzuen bidez energia iturri fosilak ordezkatuko dira berriztagarriekin, eta beste batzuekin isolamendua hobetu eta energia aurreztea lortuko da.

Herri eskolako galdara

Gaur egun zegoen galdara matxuratu ondoren, bi galdara jarrita ordezkatuko da: bata 230 kWeko kondentsazio bidezko gas naturalezkoa, eta bestea 180 kWeko biomasa bidezko galdara, pellet-ekin lan egingo duena. Pellet-ak gordetzeko biltegia ere eraikiko da, gutxienez 15 eguneko autonomia ziurtatzeko modukoa. Eraberritze lan hauetan, bide batez, instalazio elektriko guztia berritu da, koadro elektrikoa barne, eta instalazioaren monitorizazioa webserver bidez egiteko moduan jarri da.

Obra hori bukatze fasean dago, eta berogailuak pizteko garairako prest egongo da.

AURREKONTUA: 322.076,76€ (BEZ barne). TECMAN Servicios de Valor Añadido S.L. enpresari esleitu zitzaion.

Calderas nuevas en la escuela

Están finalizando los trabajos de sustitución de la caldera averiada por dos nuevas calderas: una de gas natural de condensación de 230kW de potencia y una caldera de Biomasa (pellet) de 180kW de potencia. Para alimentar la caldera de Biomasa se prevé la construcción de un silo con capacidad suficiente para garantizar una autonomía mínima de 15 días. La reforma se completa con la renovación completa de la instalación eléctrica, cuadro eléctrico incluido, y con la implementación de un sistema de gestión y control de la instalación con acceso remoto vía webserver.

PRESUPUESTO: 322.076,76€, adjudicado a TECMAN Servicios de Valor Añadido S.L.

Udaletxeko leihoak

Astigarragako Udaleko eraikin nagusian (Foru Enparantza 13) neurri aldakorreko 54 leiho eta oinezko ate bat hornitu, muntatu eta instalatzeko lanak esleitu berri dira. Leihoak berritzeak udaletxearen eraginkortasun energetikoa hobetuko du. Izan ere, isolamendua hobetu egingo da, eta modu horretan energia kontsumoa jaitsi.

EGIKARITZE EPEA: 3 hilabete.

AURREKONTUA: 98.673,96€ (BEZ barne) esleitu zaio SICALUM SL enpresari.

Ventanas del ayuntamiento

Se sustituirán 54 ventanas y una puerta de acceso en el edificio principal del Ayuntamiento de la Foru Plaza. La sustitución de las ventanas contribuirá a la mejora del aislamiento y por tanto conllevará un ahorro energético.

PRESUPUESTO: 98.673,96€. Adjudicado a SICALUM SL.

PLAZO DE EJECUCIÓN: 3 meses.

Eskolako instalakuntza fotovoltaikoa handituko da

Eskolaren estalkian egingo da handitzea, eta soberakindun autokontsumo kolektibo modalitatean jarriko da martxan. Gaur egun 50 kW-koa den instalazioaren potentzia bikoiztu egingo da lan hauen bitartez. Egingo diren lanak honakoak izango dira: ekipoen eta materialen hornidura, dagokion instalazio-ziurtagiriaren idazketa eta erregistroa, martxan jartzea eta gutxienez lehenengo urterako mantentze-kontratuak. Instalazioaren proiektua Nafarkoop enpresak idatzi du. Instalazio honen energiaren autokontsumoa 5.000 metroko erradioaren barne dauden hainbat udal eraikinetan egingo da.

EGIKARITZE EPEA: 90 egun.

AURREKONTUA: lizitazioko aurrekontua 48.312,25€ da (BEZ barne) eta oraindik esleitzeke dago.

Ampliación de la instalación fotovoltáica de la escuela

Se ampliará la potencia actual de 50 kW a 100 kW, y se pondrá en marcha con la modalidad de autoconsumo colectivo con excedentes. De este modo, la energía generada podrá ser utilizada directamente en edificios municipales en un radio de 5.000 metros desde el edificio escolar, en cuya cubierta se hallará la instalación.

PLAZO DE EJECUCIÓN: 90 días.

PRESUPUESTO de licitación: 48.312,25€ (IVA incluido), y está pendiente de adjudicación.

BADA, euskaldunon topalekua, martxan

Pasa den irailaren 18an inauguratu zen BADA, Astigarragako Euskararen Etxea, Nabarra Oñatz kaleko 11. zenbakian. AEKren euskaltegia aterpetzeaz gain, euskararen inguruan elkartu, partekatu eta eragiteko sortutako gunea izango da BADA, eta herritar guztiei zabalik egongo da.

Arrakasta handiz ospatu zen irekiera, eta bertan parte hartu zuten herriko hainbat eragilek, ikaslek, irakaslek eta herritarrek oro har, gogo bizi batek batuta: euskara suspertzea Astigarragan. Horretarako topaleku eta tresna berri baliagarria izango da BADA.

Irail osoan antolatu dira, gainera, hainbat ekintza, BADA ezagutaraztearekin lotuta. Esate baterako, irailaren 10ean, “Pipistrelo txikia” liburuaren aurkezpena egin zen, Jaione Gutierrezek idatzia eta Ainara Azpiazuk ilustratua. Irailaren 17an, AEK Eguna ospatu zen, AEKren matrikulazio kanpainaren baitan antolatutako hainbat jardduerarekin. Eta irailaren 22an, “Zenbateraino gara herri euskaldun?” hitzaldia izan zen, Xanet Urzelai UEMAko teknikariaren eskutik, Astigarragaren argazki soziolinguistikoa aurkezteko. Azkenik, irailaren 26an, “Hitz haztegia” pieza musikatu katastrofista eskaini zuten Olatz Salvadorrek eta Alaia Martinek.

Ya está en marcha BADA, la casa del Euskara en Astigarraga

El pasado 18 de septiembre se inauguró BADA, en el número 11 de la calle Nabarra Oñatz, como sede integrada del Euskaltegi de AEK y también de los encuentros, actos o charlas que se realicen en nuestro municipio teniendo como eje el conocimiento, el uso y la normalización del euskara. BADA estará abierto a todas y todos los vecinos de Astigarraga, y pretende ser un punto de encuentro, tanto para el aprendizaje y la práctica del euskara como para el diseño compartido de actividades para promover su uso y transmisión.

El acto inaugural contó con la participación de numeroso público, y con la intervención de personas significativas en el ámbito de la enseñanza y la promoción de la cultura en euskara en nuestro municipio. Además de la inauguración, en septiembre han tenido lugar la presentación de un libro, el día de AEK, una charla sobre la realidad sociolingüística de Astigarraga, y un recital de literatura y música de la mano de Olatz Salvador y Alaia Martin.

Zein neurri hartuko zenituzke jai eta ospakizunetako suziriek sortzen dituzten arazo, eragozpen eta kexak gainditzeko?

¿Qué medidas habría que tomar para resolver los problemas y quejas derivadas del uso de petardos y cohetes en fiestas y celebraciones?

Xabier Urdangarin
EHBildu

Suziriak, oreka baten bila

Udako jaien garaia igaro da Astigarragan (Martindegi, Santio jaiak, Santiomendi, Ergobia, Aiotzategi...) eta une egokia da suzirien eta petardoen gaineko gogoeta hau egiteko.

Suziriek jaiak iragartzen dituzte eta jai-giroan murgiltzen gaituzte. Tradizio handia dute, jai ia guztiean jaurtitzen dira eta. Horren ondoan, sortzen duten kaltea ere aitortu behar da, bereziki animaliei eta dibertsitate funtzionala duten pertsona batzuei. Jai giroa zaratarekin lotuta dago, baina zarata horrek sortzen duen ondoeza ere kontuan izan behar dugu. Bien arteko oreka bilatu behar dugu.

Udalak ordenantza bat du zarata mugatzeko, baina aldi berean, herriko jaietan eta gisa bereko ospakizunetan baimena eman daiteke eta ematen da zarata muga horiek gainditzeko (kaleko musika, suziriak eta abar).

Duela urte gutxi arte, suzirien gaiak ez du muga garbirik izan eta jai batzorde bakoitzak nahi adina eta edozein ordutan jaurti izan ditu suziriak, batzutean mugarik gabe eta gehiegikeriak eginez. Gorago aipatutako oreka horren bila eta bizilagun batzuen eskaerak kontuan hartuta, azken hiruzpalau urteotan hainbat neurri hartu ditu Udalak suzirien gaia arautzeko eta hobeto kudeatzeko. Batetik, jaien antolatzaileek eskaera egin behar dute, adieraziz zenbat suziri jaurti nahi dituzten eta noiz (eguna eta ordutegia), eta udalak finkatzen du kopurua, ordutegia eta suzirien potentzia. Oro har, baimen horietan suziri kopurua gutxitu egin dugu eta ekitaldien iragarpenarekin lotu ditugu, besterik gabe suziriak jaurti eta jaurti aritzea ez dugulako begi onez ikusten. Hiruzpalau urteotako emaitza ona izan da eta lortu dugu suzirien jaurtiketa hobeto arautzea. Horrekin batera, Santio jaietan jaien egitarauan bertan adierazi dugu aurten suziriak noiz jaurtiko diren. Uste dugu egokia dela eta auzoetako jaien batzordeak animatzen ditugu beren jai prometan informazio hori jartzera.

Petardoen kasuan, azken bi urteetan, jarraipen berezia egin zaio gaiari Santio jaietan, petardoen kaleko salmenta galarazteko eta haurrei petardo handiak ezin dituztela erabili jakinarazteko. Emaitza ona izan da, nabarmen jaitsi delako petardoen erabilpena. Gurasoen lankidetza ere garrantzitsua izan da.

Bide beretik jaraitu behar dugula uste dugu, oreka horren bila.

Maria Otaegi
EAJ-PNV

Ale honetarako EAJ-PNVk ez du iritzirik bidali.

Patxi Suarez
PSE-EE

Jaiak pasatu dira, eta Santio Jaiak ez ezik, Ergobiko Jaiak edo Santiago Mendi auzokoak ere bai, eta beste urte batzuetan bezala, ziurrenik eztabaida bera izan dugu: suziriak, petardoak eta sortutako zaratak, batez ere jaietan gertatzen direnak, baina urteko beste une batzuetan gerta daitezkeenak.

Kargu publikoetatik eta udal gobernutik mezu hau helarazi behar dugu: Jaiak herritar guztienak dira, jaia modu batera ulertzen duten pertsonenak eta jaia beste era batera ulertzen dutenenak, isilago lan edo osasun arrazoiengatik. Azken finean, aisialdirako eskubidea eta atsedenerako eskubidea bateratu behar ditugu.

Hemen sortzen da, beharbada, nolabaiteko polemika, eta herritarrei ahalik eta gizalege handiena eskatu behar diegu jaiak ospatzeko, eta, bestalde, nolabaiteko tolerantzia, zarata erregulatzen duen ordutegi-esparru baten barruan; eta, hain zuzen ere, Udalak hemen arautu behar du ordutegi hori, ahalik eta ordutegirik zorrotzenean eta mugatuenean suziriak erabiltzeko, osasun-arrazoiengatik zarata handiak jasan ezin dituzten pertsonentzako zaratarik gabeko ordu-tarte berezi bat ahaztu gabe.

Horrela bakarrik bateratu ditzakegu atsedenerako eskubidea eta gure ospakizunetan ondo pasatzeko eskubidea.

Han pasado las fiestas, y no solo Santio Jaiak, otras como Ergobiko Jaiak o las del barrio de Santiago Mendi también, y como otros años seguramente hemos tenido el mismo tema de conversación recurrente: los cohetes, petardos y ruidos generados, los cuales se producen fundamentalmente en fiestas, pero pueden producirse en otros momentos del año.

Desde los cargos públicos y desde el gobierno municipal tenemos que trasladar el mensaje de que las fiestas son de todos los ciudadanos y las ciudadanas del pueblo, de las personas que entienden la fiesta de un modo y las personas que entienden la fiesta de otro modo, más silencioso por motivos laborales o de salud. En definitiva, tenemos que conciliar el derecho al ocio con el derecho al descanso.

Es aquí donde surge tal vez cierta polémica, y donde tenemos que pedir a la ciudadanía todo el civismo posible para festejar sus fiestas, y cierta tolerancia dentro de un marco horario que regule el ruido; y es precisamente aquí donde desde el Ayuntamiento se debe de regular dicho horario para el uso de cohetes con el horario más estricto y restringido posible, sin olvidar una franja horaria especial sin ruidos para las personas que por motivos de salud no puedan tolerar ruidos elevados.

Solo así podemos conciliar el derecho al descanso con el derecho a la diversión en nuestras celebraciones.

Urriak 31
Gau Beltza | Ospakizuna

URRIAK 26-31

Erribera kulturgunean

ARGAZKI ERAKUSKETA, aurreko urtetako Gau Beltzen ingurukoa.

URRIAK 31, larunbata

18:30 | Foru plazan

MAKILATZEKO TAILERRA PHOTOCALLa

18:55

ADAR DEIA jendea biltzeko

19:00 | Murgiatik abiatuta

ANTZERKIA eta KALEJIRA

Kalejiran danborra jo, argi-zuzia eraman eta arima gisa parte hartzeko idatzi: astiarrakogaubeltza@gmail.com

Bukaeran | Foru plazan

BELDURREN ERRETZEA, KOPLAK eta MOKADUTXOA

ASTIGARRAGAKO Ixiokaria UDAL ALDIZKARIA

Astigarragako Udala

Astigarragako Udala
Foru Enparantza 13
20115 Astigarraga
Tel: 943 335050
udala@astigarraga.eus
www.astigarraga.eus